





Proiektuak-2015

**DONOSTIAKO PORTUKO ARRANTZA-KAIKO
PANTALANEN 1. PROIEKTU BERRITUA**

Laburpen-fitxa



Deskribapena	Egilea / Kontratista / Data	Zenbatekoa	Epea
Proiektuaren idazketa	Gipuzkoako Portuen Zerbitzua (2015eko ekaina)	354.734,85 € (BEZik gabe)	3 hilabete

Aurrekariak: "Donostiako portuko arrantza-kaiko pantalanen proiektua"
(DUBEGA, 2012)

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Donostiako portuak bi kai ditu: bat kirolerako edo aisialdirako, eta beste bat arrantza-jarduera profesionalki egiten duten ontzientzat.

Kirol-kaiak pantalanak ditu, ontziak atrakatzeko. Gaur egun, kaiaren neurri txikia dela eta, itxarote-zerrenda luzea dago portuan atrakaleku bat lortzeko. Horrez gain, ez daude behar adina atrakaleku itsasaldietan dabilen ontzientzat (kortesiazko esaten zaie); horiek erabiltzen dira bisitariek eta turistek aldi baterako atrakatzeko.

Era berean, Donostiako arrantza-jarduerak behera egin du, eta, ondorioz, kaiari ez zaio eskaintzen duen erabilera guztia ematen. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritza aspalditik aztertzen ari da Donostiako arrantza-kaian arrantza-ontzien atrakalekuak eta kirol- edo itsasaldi-ontzienak bateratzeko aukera, portua ahalik eta gehien aprobetxa dadin.

2012an, DUBEGA ingeniaritza-enpresak "Donostiako portuko arrantza-kaiko pantalanen proiektua" idatzi zuen; bertan beste antolamendu-aukera batzuk aztertu zituzten, martxan dagoen arrantza-ontzidiaren arabera. Arrantza-ontzi batzuek baja eman dutenez eta arrain-lonja erabat itxi denez, proiektu hori berrikusi egin behar izan da, arrantza-kaiko eremua antolatzeko eta egungo egoerara egokitzeko. Ondorioz, proiektu berri bat idatzi da.



Proiektu berritua idazteko, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak Donostiako portuan dauden arrantza-ontzi profesionalen errolda eskatu zien Arrantza Zuzendaritzari eta Donostiako Arrantzaleen Kofradiari. Kotsulten emaitzaren arabera, Donostiako arrantza-ontzidia (3. zerrenda) 4 ontzik osatzen dute, guztiak 10 eta 12 metro arteko luzerakoak. Datu hori oinarritzat hartuta, kaia berrantolatzeko hainbat aukera aztertu dira, lekuak profesionalen eta kirolarien artean banatzeko. Aukera horiek Arrantza Zuzendaritzarekin, Donostiako Arrantzaleen Kofradiarekin eta Euskadiko Kirol Portuak (EKP) elkarte publikoarekin batera aztertu ditugu.

Hauek izan dira pantalanetarako amarralekuak diseinatzeko baldintzak:

- Une honetan aktibo dauden arrantza-ontzien amarralekuak beren horretan uztea.
- Erabilera bakoitzerako bereizitako eremuak izatea: profesionalak eta kirol-arrantzakoak.
- Bereizitako lurreko sarbideak izatea itsasaldian dabiltzan ontzien amarralekuetarako eta bertako ontzien amarralekuetarako.
- La Jaranako kaia martxan egotea zerbitzu jakin batzuk emateko.
- Arrantza-ontziek eta itsasaldian dabiltzan belaontziek maniobrak egin ahal izatea.
- Ura eta energia elektrikoa edukitzea pantalanean.

Antolamendu berri honek lau pantalan-adar sorraraziko ditu. Lehen adarra **itsasaldian dauden ontzientzat** izango da; kai nagusiarekiko perpendikularrean egongo da. Beste hiru adarrak Lonjako kaiarekiko perpendikularrak eta paraleloak izango dira. Adar horietako bat dagoeneko erabiltzen da, itsasoko langile erretiratuen kirol-ontzientzat; beraz, egingo den gauza bakarra adarra birkokatzea izango da, antolamendu berriaren arabera. Pantalan horren amaieran, beste bat instalatuko da, 12 metroko luzera eta 2 metroko zabalera izango dituen. Pantalan hori finger gisa ere erabiliko da. Guztira, 10 metroko luzera baino gehiagoko ontzientzako 14 amarraleku berri sortuko dira.

Bigarren adarra kai nagusiaren eta Lonjako kaiaren arteko izkinan hasiko da, eta kai horretako eskailerara arte iritsiko da (ekialdetik mendebaldera). Pantalana 36 metro luze eta 2,5 metro zabal da. Pantalan horren perpendikularrean hirugarren adarra egongo da, 28 metro luze eta 2,5 metro zabalekoa. Laugarren adarra, Lonjako kaiari lotutako bigarren adarrarekiko perpendikularra, gaur egun arrantza-kaian dagoen 32 metroko pantalana aprobeztatuz proiektatu da; 1,5 metro zabal izango da. Hiru adar horietan arrantza-ontzi profesionalentzat (3. zerrendakoak) 5 amarraleku egongo dira, eta itsasoko langile erretiratuen kirol-ontzientzat beste 22.



ATRAKATZEKO EREMUA	AMARRALEKU KOP.	ESPARRUA
1. ADARRA	14	ITSASALDIA
2. ADARRA	Banaketa	KOFRADIA
3. ADARRA	3. zerrendako 5 profesional 11 kirol-ontzi	KOFRADIA
4. ADARRA	11 kirol-ontzi	KOFRADIA

INGURUMEN-HOBEKUNTZAK

Obra horiek gauzatzean, kontuan izan beharko da itsas ingurunea. Hori dela eta, ezingo da ezer isuri uretara, ezta ur-laminari kalte egin ere.

PAISAIA-INTEGRAZIOA

Amarralekuen tipologia lehendik dauden antzekoa da, paisaiaren tipologia eusteko.